

MARTXOAREN 8-KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Emakumearen Nazioarteko Egunak emakumeak gizonaren pare gizartean parte hartzeko eta pertsona bezala osotasunean garatzeko egin duen borroka ospatzen du. 1910eko abuztuan ebazpen bat onartu zen Copenhaguen, Clara Zetkin-ek proposatua, martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzen zuena, emakumearen eskubideen aldeko mugimenduaren omenez eta sufragio unibertsala lortzen laguntzeko.

Harrezkeroztik, mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek nahiz botere publikoek egindako lanari esker, eta gizarte eragile askok eta herritarrek orokorrean pixkanaka-pixkanaka egin duten ekarpenari esker, aurrerapen esanguratsuak lortu dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean gure gizartean.

Azken urteotan egindako ahaleginak aurrerapen handiak ekarri ditu legeetan, eta horien egintzek lege-berdintasunetik benetako berdintasunerantz joateko aukera emango dute. Hala ere, gure gizarte honetan oraindik ere desberdintasun handiak daude emakumeen eta gizonen artean eskubideak, boterea, baliabideak eta onurak lortzeko, gauzatzeko eta benetan kontrolatzeko garaian.

Emakumeen eta gizonen arteko partaidetza orekatuak ez du mugatu behar politikaren alorrera; gizarte, ekonomia eta lanaren alorrean zabaltzen jarraitu behar du. Eta horretarako, paper garrantzitsua jokatzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arlo guztietan gauza dadin lanean diharduten mugimendu asoziatiboek eta herritarren ekimenek.

Horregatik guztiagatik, Irungo Udalak:

- 1.- Bere babesa ematen dio martxoaren 8ko, hau da, Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari, hori baita nazioarteko komunitateak mugimendu feministaren eta emakumeen mugimendu asoziatiboaren eta Berdintasuna lortzen laguntzen duten emakume eta gizonen lana aitortzeko adostutako data.
2. Garrantzitsua irizten dio emakumeen mugimenduak martxoaren 8rako dituen ekimenak babesteari, helburu hauek lortzeko:

a. emakumeen eta elkarte-sarearen partaidetza soziopolitiko bultzatzeko,

sendotzeko eta babesteko.

b. udal erakundeen eta herritarren artean tokian-tokiko berdintasun politikak egitera bideratutako itunak egiteko.

c. emakumeak eta emakumeen mugimendu antolatua eta/edo feminista tokian-tokiko Berdintasun politikak aurrera eramateko funtsezko solaskide gisa aitortzeko.

3. Mugimendu feminista eta /edo emakumeen mugimendu antolatua bultzatzeko, babesteko, indartzeko konpromisoa hartzen du, gure hiriko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari laguntzarren.
4. Udal honek eskertu nahi du, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde, Irungo emakumeen elkarteek egin duten lana

Irun, 2014ko martxoaren 5a